



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Eratze Bilkura -

Data eta lekua	2015eko azaroaren 4an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:30 - 19:20

ETORRITAKOAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkariak)

PSE-EE

EH BILDU

IRABAZI

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BERRITZEGUNEA

SSHOPS DONOSTIA (MERKATARITZA)

URTXINTXA

BAGERA ELKARTEA

BIZARRAIN AUZO ELKARTEA

AEK

Herritar norbanakoa 1

Herritar norbanakoa 2

Departamentuko langileak:

Euskara Zerbitzuburua

Euskara teknikaria

Laguntza teknikoa:

2 PERTSONA

EZ ZIREN BERTARATU:

PP-KO ORDEZKARIA

EAJ-KO ORDEZKARIA

EUSKARA BATZEN

ULIAKO AUZO ELKARTEA

EHU

LAB

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA



1.- Kontseiluko Lehendakariaren agurra eta Euskararen Kontseilu Sektoriala eratzea.

Lehendakariak agurra luzatzen die Euskararen Kontseilu Sektorialaren eratze bilkurara etorritakoei.

Horrekin batera zera azaltzen du: Udalak arautegi berria sortu duela kontseilu sektorial guztiek oinarri komun bat izateko ahaleginean. Araudiak kontseilu sektorial guztien eta Euskararenaren ezaugarri eta funtzioak jasotzen ditu. Euskararen Kontseilu Sektorialaren Araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko maiatzean argitaratu zen eta berarekin lan egin beharra dago hemendik aurrera.

Idazkaritzaren aldetik, kontseilukideei Araua bidaliko zaiela adierazten da.

Lehendakariak Euskara Kontseiluari buruzko ondoko xehetasunak eskaintzen ditu: Kontseiluak udal taldeetako ordezkariak, eragile publiko zein pribatuak bildu nahi ditu, helburuak partekatze, iritziak plazaratzeko eta elkar lana burutzeko. Aurreko kontseiluan ez bezala, hiru kide mota bereizten dira oraingo honetan, euskararekin harremana duten helburu sozial, xede edo jarduerak dituzten Herritarren Elkartek, Euskararen normalizazioaren arloan gizarte-ospe berezia duten pertsona edo kolektiboak edo hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik interesekoak diren sektore desberdinetako ordezkariak eta, azkenik, pertsona fisikoak. Ez da nahitaezkoa Kontseiluko partaide izateko euskara zuzenean sustatzen duen erakunde izatea, baizik eta euskara zehar lerro gisa bultzatzen duen erakundeetarako ere tokia badagoela, euskara zeharreko gaia baita. Kontseiluaren hurrengo bileretan partaideen kopurua nola osa daitekeen aztertuko da.

Bilerara etorritako kideekin quoruma badagoela ikusi ondoren Euskararen Kontseilua formalki eratutzat ematen da.

2.- Kontseilua osatuko duten eta ez duten gizarte ospe-bereziko kolektiboen inguruko Lehendakariaren proposamena eta bozketa Bilkuran.

Gizarte-ospe berezia duten pertsona edo kolektiboen aldetik Kontseiluaren kide izateko eskaera egin dutenak SSHOPS DONOSTIA, AEK, BERRITZEGUNEA, EHU, GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA ETA LAB izan direla azaltzen du Lehendakariak. Idazkaritzak eranstean du aldeko txostena egin dela kasu guztietan. SSHOPS izan ezik, gainerako guztiek aurreko batzordean jada parte hartzen zutela. Sailak SHOPPSekin kanpaina desberdinen inguruan elkarlanean oso estu diharduela eta Kontseiluan egotea oso interesgarritzat jotzen dela eranstean du.

Lehendakariak jakinarazten du beste erakunde batzuen aldetik partaidetzarako eskari gehiago jaso direla eta Kontseilua osatzen joatea interesgarri jotzen dutenez, eskaria berandu egin dutenak hurrengo bilkuran onartuko direla. Batzorde Iraunkorra izango litzateke hurrengo bileretan onarpenaz arduratuko litzatekeena.

Ontzat ematen da bertan dauden guztien aldetik kolektiboen onarpena eta sartzeko baimena ematen zaie. Idazkariak jakinarazten du kolektibo batzuek ezin etorria adierazi dutela.

3.- Bilkurako Kide bakoitzaren aurkezpena.

Saioa etorritako bakoitzak bere buruaren aurkezpena egiten du.



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

4.- Kontseiluaren antolaketari buruzko argibideak: arautegia, funtzionamendua, organoak...

Lehendakariak Euskara Kontseiluaren helburuen irakurketari ekiten dio eta Kontseilua elkarrizketarako espazioa izatea, elkarlanerako sarea egiteko eta kontseilukideen arteko harremanetarako baliagarria izan behar duela azpimarratzen du.

Idazkariak gogorarazten du elkarte guztiek lehenbailehen titularraren ordezkoa izenda dezatela komeni dela.

5.- Lehendakaritzak kontseilurako aurreikusitako ardatz nagusiei buruzko aurkezpena egingo du.

Lehendakariak udalak euskararen sustapenerako bi baliabide dituela jakinarazten du: Euskararen 5. Udal Plana, udal barneko normalizazioari zuzendua, eta herritarrei begirako Euskararen Plan Orokorra, 2015eko apirilean onartu zena eta, beraz, hastapenean dagoena. Plana Euskara Zerbitzuaren webgunean eskuragarri dagoela eta Kontseilu honi 2016ari begira plan zehatzagoa proposatzea eta lantzen hastea dagokio. Izan ere, hizkuntzaren erabileran dago egun erronka nagusia, hala nola, etxeko transmisioan, eskola-gurasoekiko elkar lanean eta haur eta gazteen erabileraren bultzadan.

Eransten du baita ere, aurreko legealdian zenbait egitasmo martxan jarri zirela eta haietan parte hartu zuten eragileak kontseilura gonbidatzea pentsatu beharko litzatekeela, auzoetako euskara batzordeak esaterako. Halaber, Kontseilu honetan sor daitezkeen lan taldeetan zein arlo landu beharko liratekeen pentsatu beharko litzateke, lan arlo ugari baitaude azter daitezkeenak. Kideen aldetik Plana hobetzeko proposamenak jasotzeko, aurrera nola jarrai daitezkeen erabakitzeko xedez eman zaio Kontseilu honi sorrera.

Puntu honen amaieran, Kontseilua urtean 3 aldiz bilduko dela azaltzen da eta bere aldamenean hurrengo bileran osatuko den Batzorde Iraunkorra izango duela azaltzen du Lehendakariak.

6.- Kontseiluko Lehendakariordearen aukeraketa bozka bidez.

Prozedura betetzeko xedez, bilera honetan lehendakariordea aukeratu beharra dagoela adierazten du Idazkariak.

Lehendakariak ondoko xehetasunak ematen ditu Lehendakariordearen karguaren inguruan: Lehendakariordea Batzorde Iraunkorreko partaide izango da beste 4 batzordekiderekin batera (Kontseilu honen tamainagatik kopuru hau askitzat jotzen da, nahiz eta Arauak 5 kide izateko aukera ere eman). Lau kide hauekiko %50 eroldan izen emana duten elkarteetako ordezkariak izan behar dute eta besteak gainerakoan artean aukeraturikoak izan behar dute.

Idazkariak lehendakariordearen funtzio eta ardurak azaltzen ditu, hala nola, Batzordearen koordinazioa, Hiriko Gizarte Kontseiluan Euskara Kontseiluaren ordezkari gisa egotea, Plan Estrategikoaren lan batzordean parte hartzea eta lehendakaria ordezteko. Gehienez lau urtez izango du kargua eta ahaleginak egin behar dira txandatzetan parekidetasuna bermatzeko.

AEK-ko ordezkariaren iritziz egokiena litzateke Donostiako ikuspegi orokorra duen erakunde batek hartzea kargua, BAGERA edo BATZENek, alegia.

Idazkariak aditzera ematen du Gizarte Kontseilua datorren hilaren 11n egingo delako erabaki zela kargu hau bilera honetan aukeratzea.

BAGERako ordezkariak adierazten du beste inor ezean kargua onartuko lukeela.



Idazkariak Lehendakariordearen ordezkia ere aukeratu behar dela jakitera eman ondoren, Kontseiluak aho batez onartzen du Lehendakariordetzaren titular BAGERA eta ordezkia BATZEN izan daitezela.

7.- Hurrengo bilkuran Batzorde Iraunkorra aukeratzeko prozeduraren eta 2016 urtera-ko plangintza egiteko informazioa.

Hurrengo bilera baino lehen, 2016ko plangintzari begira kontseiluko kideek proposamenak egin ditzaten alde aurretik prozedura zehaztuko dela eta Euskararen Plan Orokorra bidaliko zaiela jakinarazten da Idazkaritzaren aldetik. Halaber, etorritakoei Batzorde Iraunkorrerako hautagaitzak bilera horren aurretik bidal ditzatela eskatu zaie eta, helburu horrekin, aurretik idatziz bidaliko zaizkie prozedura honi buruzko xehetasunak kideei. Epe bat irekiko da hautagaitzak aurkezteko eta hurrengo bileraren aurretik hautagaitza horiek guztiei helaraziko zaizkie, bileran bozkatu ahal izateko.

Lehendakariak azaltzen du hurrengo bileran kolektibo gehiago sar daitezkeela eta hauek ere agian nahiko dutela Batzordekide izan.

BAGERako ordezkariak adierazten du oso logikoa ez dirudiela Lehendakariordearen ordezkia dena Batzorde Iraunkorrean ez egotea.

Lehendakariak argitzen du inon ez duela hori egin ezin litekeenik jartzen, ondorioz Lehendakariordetzan dauden bi elkarteak izan daitezkeela Batzordekide.

Idazkariak adierazten du Batzorde Iraunkorraren eratze prozedura Partaidetza Sailarekin kontrastatuko dela, hautagaitzak aurkeztu eta hurrengo bileran sartzen diren kide berriei Batzordeko kide izateko aukera emateko.

Lehendakariak hurrengo bilera baino lehen Araudia eta Euskara Plana bidaliko direla agintzen du eta urtariletik aurrera gaiekin lanean jartzea dela asmoa. Baita ere, Batzorde Iraunkorra izango dela Kontseiluaren deialdiak eta gai zerrendak prestatuko dituen.

BAGERako ordezkariak Gizarte Kontseiluan hizkuntza irizpiderik aplikatzen ote den galdetzen du.

Arauan euskara erabiltzeko saiakera egitea jasota dagoela erantzuten zaio.

EH BILDUKo ordezkariak, Kontseilu honetan Gizarte Kontseiluan euskararen kudeaketa nola egin beharko litzatekeen pentsatzea garrantzitsua izan daitekeela adierazten du.

Lehendakariak azaltzen du Kontseilu sektorial guztietan, eta baita Gizarte Kontseiluan ere, aldibereko itzulpena eskaintzeaz gain udal ordezkarien aldetik erabilera orekatua bermatuko dela.

BAGERako ordezkariaren iritziz, pertsona berak egonda ere, bilera batetik bestera euskararen erabilera asko alda daiteke. Bilera bideratu behar dutenek bultzatu behar dute, beraz, erabilera.

Herritar norbanako baten ustez Mahaian daudenek egiten duten hizkuntza erabilerak bilerako gainerakoen hizkuntza erabileran eragin handia du.

Bertaratutakoak adierazitakoarekin guztiz ados agertzen dira.

19.20etan bilera amaitutzat eman da.